


iritzia

gaurko...

...elkarriketa



Xakobe Bastida

• UNIBERTSITATEKO
IRAKASLEA •

«Konstituzioaren irizpide moraletik at bazterketa dago»

Autodeterminazioari buruzko
hitzaldi bat eman du
Iruñean irakasle galiziarrak.

■ Autodeterminazioa, nazionalitateak eta konstituzioa izan zen- tuen hizpide ostiraleko hitzaldian.

Hiru terminoek harreman zuzena dute. Gaur egun, gainera, *konstituzionalismoa* hitzetik hortzera dabilgun terminoa da, konstituzioa osagai moralez bete nahian, osagai juridikoez gain. Konstituzioaren irizpide moraletik at bazterketa soziala eta eraso bortitza dago. Hori da *konstituzionalismoa*. Konstituzioan babestutako patriotismoa aldarrikatzen da behin eta berriz, baina Espainiako Konstituzioaren bigarren artikuluan oinarritzen den aldarrikapena da. Hain zuzen, militarrek inposaturiko artikuluan. Parlamentutik at erabakitako lege bat —2.artikulua—, nola bihur daiteke konstituzioaren patriotismoaren eredu, balio progresistetan oinarrituz gainera? Autodeterminazio eskubidearen ukapenak demokrazia kutsua kentzen dio Espainiako konstituzioari.

■ BNGko kide izanik, zer iruditzen zaizu Galizia- ko mugimendu nazio- nalistaren igoera?

Mugimendu nazionalista Kataluniakoaren edo Euskal Herrikoaren pare jarri da, batez ere hirietara hedatu delako.

Jose Luis Aizpuru
DONOSTIA

...esaera

«Denok sabai beraren azpian bizi gara,
baina inork ez dauka horizonte berdina» **Konrad Adenauer**

...balkoia

Zentralak sukurtsalei tarterik uzten ez dienean

• MARTXELO OTAMENDI •

Joan den igandeko hauteskundeek ekarri dituzten ondorioen artean bada bat, berria ez izanagatik, arreta eskatzen duena: aukeren murriztea. Behin eta berriro errepikatu da Euskal Herrian, Hegoaldeko bi zati administrazioaren bereziki, aukera politikoen aniztasuna zela ezaugarrietako bat. Ez da oso atzera jo behar ikusteko zenbat laburtu den alderdi kopurua. Gaur zortziko hauteskundeek likidatu egin dituzte aurrekoetan proba nola edo hala gainditu zuten alderdi txikiak. Araban UA, CDN Nafarroan eta EB-IU Hegoalde osoan. Europako herri handien eredura ari gara hurbiltzen apurka: zentro-ekzerreko talde indartsu bat, eta zentro-eskuineko beste bat; biak txandatur. Ez da igande honetan hasi, baina igandekoa errematea izan da batzuentzat. Hegoaldean, ordea, nazio faktoreak beste ardatz bat ezartzen du aukera politikoen mapa marrazterakoan. Gurean, bi ardatzak kontuan hartuta —gizarte eredua eta nazio eredua—, lau talde nagusi daude: abertzaleetan, ezkerreko talde bat (EH-HB), eta zentro-eskuineko beste bat (EAJ-EA koalizioa); eta Espainiako proiektua lehenesten dutenetan, zentro-ekzerreko bat (PSE-EE/PSOE) eta eskuineko bat (PP-UPN). Hortik kanpo, horrela gertatu da progresiboki hauteskunde hauteskunde, zail da politikoki arnasa hartzeko esparrua topatu ahal izatea. Eta, itxura guztien arabera, Hegoaldeko herritarrak hautes-tontzietara deituko dituzten hurrengoan (Espainiako Parlamentura) larriagotu egingo da alderdi txiki horien agonia.

• Akordio zailen eremuan

Alde batetik emaitzek utzi duten panorama politikoak, eta bestetik zenbait alderdik aurrez hartuta daukaten jarrerak, zaildu egiten dute Hego Euskal Herrian politika bateratu bat diseinatu eta adostea. Aurreneko begiratu batean ematen du sozialistek dutela garrantzi-tsuenetako bat. Izan ere, PSN abertzaleekin, ez hauekin bakarrik ordea, akordioak egiteko prest balego, asko erraztuko litzateke politika bateratuak, ez ezinbestean kalkatuak, egiteko modua. Hegoaldeko bi administrazioetan posible litzateke, lehen aldiz, lana elkarrekin egitea.


• PSN gatibu PSOE-PP borrokan

Gutiziagarria izan zitekeen Nafarroako Lehendakaritza PSNrentzat, baina igandea baino lehen nahiz ondoren Lizarbek esandakoak ez dio itxaropenari zirrikitu-rik uzten. PSNk PSOE du buruan, bi adieretan, eta ez du autonomiarik politika propioa erabakitzeko. PSOEek ez dio PSN-ri Espainian lehena jokatzeko ari den norgehiagokan tantoak galtzeko arriskua ekar liezaiokeen maniobrarik egiten utziko. PPrekin martxoan duen lehiari begira ari da PSOE, eta berak du erabateko lehenetasuna estrategian. Galizian PSGk BNGrekin Fragaren alderdiari boterea kentzeko egin duen operazioa da (55 alkatetza) PSOEren beste sukurtsalek duten maniobra tarte zabalagoaren erakusgarri. Euskal Herria tarteko denean, aitzitik, zero matematikora murrizten da zentralak sukurtsalei uzten dien marjina.

...pertsonaiak



MANUEL SANROMA • Mantiako txirrindulariak bizia galdu zuen atzo, Kataluniako Voltan izandako eroriko baten ondorioz. Aurtengo denboraldiko ustekabeetako bat zen Sanroma.



JOSEBA ZULAIKA • *Lurralde kantuak: identitate hitz eta irudiak* izeneko jardunaldietan hizlari izan da Zulaika antropologoa Biboko Hika Ateneoan.



JOSE MARI ARRAZOLA • Esklerosi Lateral Amiotrofikoaren Nazioarteko Eguna da bihar. Gipuzkoako ELA Elkargoko lehendakariaren iritziz, «minutuei bizia eman behar diegu».

...datua

38. partidua jarraian (Espainiako Liga Txapelketako guztiak) jokatu du gaur Antonio Carmonak, Alaveseko jokalaririk.

...adierazpena

«Gure Kongresuak bestelakorik ez dioen bitartean, bakarrik aurkeztuko gara Espainiako Hauteskunde Orokorretara»

Karlos Garaikoetxea
Eako presidentea

... seiko urrea

JEAN LOUIS DAVANT

Gure deputatua



Europarlamenturakoo hauteskundeak emaitzez gauza frango erran izan da, iparraldean bederen, hegoaldean beste kezkarik baituzue probintzia eta udaletxeokien. Ene iritziek ez lukete literatura den gutienik ere aberasten ahal. Beraz oso maila apal eta pragmatiko batean egonen naiz, europarlamentarien hurbiltasunaz gogoeta zenbait egin.

Iparraldetik Akitania delako eskualdean gaude: hemen «eskualdea» erraiten dugu euskaldun zaharrek, eta ez «erregioa». Bortz deputatu badauzkagu: biga Bordele aldean (RPR-eko Martin eta PS-ko Savary), hiru Pyrénées-Atlantiques delako departamendu (pro-

bintzia) honetan. Ez dut uste askorik ibiliko garen Bordelekoen ondok: ideologia guztien gainetik, bi-tartean daude kilometroak ugari. Departamendukoak aipa ditzagun beraz: Bayrou eta Lamassoure zentristak (UDF) eta Saint-Josse ihiztarien aintzindaria, hiruak biarnesak. Lamassoure hemen daukagu, BAB sonatuan kokatua, Angeluko auzapez berria

gainera. Hautetsi abertzaleez kanpo, hori dugu hurbilena: errezi mintzatzeko tokian, gizon ideki eta ongi ikasia, zinez etsaia genukeena baino hobe, dirudienez bederen...

Bertzalde hegoaldean hiru abertzale, horietatik biga pertsonalki ezagutzen ditudanak eta hemendik agurtzen: zorianak zuei, Gorka eta Koldo, Estraburgon Euskal Herri osoa-

ren mezulariak izanen zaretenak. Zu, Koldo, iparraldekoa zaitugu gainera, 30 urteotan Baionako hiritarra. Beraz denetatik hurbilena zaitugu. Ez dut zalantzarik ipar eta hegoaldearen arteko zubi natural eta egoia zaitugula. Bertze gauza bat ere zinez eskatuko dizut: Europarlamentuko berrien emaitza noiztenka, erran nahi dut ahal bezain usu, han bozkatzen baitira gure bizitza gehienik bideratzen duten lege nagusiak. Bertze deputatuek ere ber eginbidea dute naski, agian aintzinekoek baino hobeki beteko dute, eta Europarlamentuko biltzar eta lanetan jarraituki parte har dezatela, horretarako hautatuak izan baitira.